

# Konfiantzaren pedagogia izango dute Txantxiku Ikastolan

Haurren ahalmenak errespetatzea eta sustatzea oinarri dituen sistema berritzailea lantzen hasiko dira Oñatiko Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzan.

**H**aurraren sinetsi behar delako, haurrak konfiantza izan behar duelako bere buruarengan, bere irakasle eta ikaskideengan eta baita bere testuinguruan ere, konfiantzaren pedagogiaren alde egin du Txantxiku Ikastolak. Irakasleen eta gurasoen prestaketa egingo dute ikasturte berrian, eta proiektua 2016-2017an gauzatuko da.

## EZAUGARRIAK

Txantxiku Ikastolako zuzendari Zigor Ibarzabalek azaldu duenez, lau ildo nagusi ditu sistema horrek: "Haurra norbanako bezala garatzea, umea bere osotasunean garatzea; adin ezberdinetako haurrak harremanetan jartzea, elkarrekiko interakzioan batzuk besteengandik ikas dezaten; espazioaren antolaketa umearen garapen integralean duen garrantziaz jabetzea eta ikastolan familiaren presentzia areagotzea".

**Haurrak era autonomoan garatzeko duen gaitasunean konfiantza izatea da sistema horren ardatza**

**Umearen erritmo biologikoa, kognitiboa eta emozionala errespetatuko ditu, hiru dimentsioko espazioan**

**Familia eta ikastola elkarlanean aritzea garrantzitsua da, horrek ziurtasuna eman-go dio-eta umeari**

Rafael Cristobal doktore, irakasle eta hezkuntza adituaren esanetan, "haurrak era autonomoan garatzeko gaitasuna du eta gaitasun horretan konfiantza izatea da pedagogia horren ardatz nagusia. Berezko gaitasun hori garatzeko, ezinbestekoa izango da mugimendu eta jardura librean aritzeko baldintzak, baliabideak eta denbora eskaintzea". Hala, orain arteko gelak egokitu egin behar dira espazio zabal eta interesgarriak sortzeko. "Hau da, proiektu pedagogikoak eta proiektu arkitektonikoak bat egin behar dute. Hiru dimentsioko egiturak haurren eskura jarri behar ditugu esploratzeko eta esperimintatzeko", azaldu du Zigor Ibarzabalek, Txantxiku Ikastolako zuzendariak.

Pedagogia eredu horren beste gako bat da umearen erritmo biologikoen, kognitiboen eta emozionalen errespetua. "Haur bakoitza ezberdina da eta horren baitan dituen behar, gogo, interes eta bestelakoak umearenak propioak dira; hau da, norberaren beharretara egokitutako hezkuntza izan behar da", dio Cristobalek.

Horrez gain, haurrek duten berezko gaitasun hori garatzeko, behar-beharrezkoa da umeak elkar harremanetan jartzea. Adin ezberdinetako haurrek elkarri begira, nagusiagoak imitatuz, txikiagoak lagunduz eta jolas interakzioan ikasten baitute.

"Hori guztia aurrera eramateko oso garrantzitsua izango da familia eta ikastola elkarlanean aritzea. Umeari familiako kideekin duen atxikimenduak ziurtasuna ematen dio eta lotura hori ikastolako irakaslearekiko garatzea oso garrantzitsua da, umearen ikasketa prozesua ahalik eta egokien bideratzeko", dio Ibarzabalek.



## TXANTXIKU IKASTOLA.

Rafael Cristobal (esk.) eta Txantxiku Ikastolako koordinazio taldea.



**EREMUA.**  
Arizmendi Ikastola, Uribarri gunea.

## HILEAN BEHIN GURASOENDAKO MINGEAK EGINGO DITUGU

Konfiantzaren pedagogian, haurren ikas-irakas prozesua eraginkorra izan dadin, haurren testuinguruak, inguratzen duen egoera eta espazio horrek garrantzi handia du. Familiak garrantzi handia du.

Hala, Debagoieneko guraso guztiei zabalik dagoen mintegia antolatu dugu Txantxiku Ikastolan. Zero eta urte bateko

umeen gurasoei eta haurdun dauden gurasoei zuzenduta dago. Mintegiak hilean behin izango dira Txantxiku Ikastolan bertan, eta umeak bere beharrrak komunikatzeko igortzen dituen seinaleak interpretatzen irakatsiko dute.

Mintegiek bi orduko iraupena izango dute, arratsaldeko bostetan hasita; lehenengo za-

tian ikuspegi teorikoa landuko dute, eta ondoren, aurkeztutako gaiaren gainean sortzen diren zalantzak, kezak, esperimentuak eta ideiak partekatuko dituzte, hausnarketa eran.

Mintegietan parte hartzeko izena eman behar da aurrez ikastolako idazkaritzan. Prezioa 20 euro da, bikoteko. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

- Irailak 18: Mintegiari sarrera. Gurasotasuna eta bikote krisia. Haurren lehen sei urteen garrantzia
- Urriak 23: Senaren edo instintuaren teoria eta konfiantzaren pedagogiaren oinarriak
- Azaroak 20: Umearen erritmo biologiko eta intelektualak
- Abenduak 11: Atxikimendu sena. Jatorria eta ontogenia. Atxikimendu neurgailuak
- Urtarrilak 22: Banatzea, galera. Banaketa eskolatzean
- Otsailak 26: Diadaren barne fenomenoak. Autoestimua jatorria
- Martxoak 18: Atxikimendu instintuaren ikerketa. Atxikimendu motak eta ezaugarri familiarak
- Apirilak 29: Ustiapen eta garapen kognitiboa. Erritmo kognitiboak
- Maiatzak 20: Ihes eta beldur sena eta horren agerpenak

**txantxiku ikastola**

**Konfiantzan hezten**

San Juan kalea 1  
Tel.: 943 78 12 04  
[www.txantxikuikastola.eus](http://www.txantxikuikastola.eus)  
[txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus)